

Donostiak 112 profesionalen osatutako garbiketa-dispositibo berezi bat martxan jarriko du 2026ko Aste Nagusian

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak txandak, makineria eta hondakinen bilketa indartuko ditu jai-jarduera handieneko tokietan. Horrekin batera, "Jaiak gozatu, kalea errespetatu" kanpaina zabalduko du.

Donostiako Udalak, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzaren bidez, garbiketa-dispositibo berezi handi bat jarriko du abian 2026ko Aste Nagusian. Hala, bada, ohiko zerbitzuak berrantolatuko dira, eta langile, makina eta baliabide kopuru handiak jarriko dira hondakinak biltzeko.

Operatiboak 112 profesional izango ditu, eta zazpi jarduera-eremutan antolatuko da: Parte Zaharra eta Erdialdea; Pasealeku Berria, Aldamar eta Zubietan; San Martin eta San Bartolome; Gros, Kursaal, Zurriola eta Sagues; arratsaldeko txanda berezia; su artifizialak jaurtitzeko aldea Alderdi Ederren, eta kaiaren ingurua.

Iñigo García Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkariak nabarmendu duenez, "Aste Nagusia urte osoko garbiketa-erronka handienetako bat da. Egun horietan, baliabideak ugaritu eta zerbitzuak berrantolatzen ditugu, hiriko toki askotan izaten den pertsonen eta jardueren kontzentrazio handiari erantzuteko".

Makineria eta zerbitzuak indartzea

Dispositiboak honako baliabide hauek izango ditu: kamioi biltzaileak; anplirroll-sistema duten kamioiak; 8 eta 16 metro kubikoko zisternak; espaloiak urez garbitzeko makinak; galtzadak eta espaloiak ekortzeko makinak; ibilgailu arinak, hidrogarbigailuak; zorua garbitzeko makinak; fatxadak eta pintadak garbitzeko furgoiak; haize-makinak, eta eskuz ekortzeko orgak.

Honako lan hauek ere egingo dira: eskuzko baldeaketa eta baldeaketa mistoa, paperontziak hustea, hondakinak biltzea, presiopeko urarekin garbitzea, zoladurak garbitzea eta orbanen eta usain txarren tratamendu espezifikoak.

Taldeek goizez, arratsaldez eta gauez lan egingo dute, eta toki hauek zainduko dituzte bereziki: jende gehien biltzen dituzten tokiak, eta kontzertuak, jai-ekintzak edo ekitaldi jendetsuak egiten diren esparruak.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Su artifizialetarako operatibo bereziak

Alderdi Eder eta Kontxa aldeak dispositibo espezifikoko bat izango du egunero, su artifizialen aurretik, bitartean eta ondoren. Gaueko lanak 21:30ean hasiko dira: Hernani eta Igentea kaleetako baldeoa, oinezkoen pasabideak garbitzea eta hesiaren ingurua egokitzea. Suek amaitu eta gero, ekipoek jarraituko dute Erdialdean baldeoa egiten eta Kontxa eta Bulebar pasealekuetan errefortzu moduan jarritako paperontziak eta ontziak husten.

Egunez, suen jaurtiketaren ingurunean sortutako hondakinak kenduko dira. Lehiaketa amaitu eta gero, garbiketa integrala egingo da: alde horretatik hurbil dauden Kontxako baranda, eserlekuak eta haurrentzako jolasak eskuz garbituko dira, xaboiarekin eta mostratxarekin, besteak beste. Halaber, Abordatze Pirata dela-eta, berariazko zerbitzuak izango dira kaian eta Sagues, Zurriola eta Kursaal inguruetan.

Pixen, gonbitoek eta usain txarren tratamendua

Interbentzio berezi bat izango da, pixek eta gonbitoek eragindako orbanak eta usain txarrak kentzeko.

Produktu desinfektatzaileak eta usain-kentzaileak aplikatuko dira sektore guztietan. Horretaz gain, eskuzko garbiketak egingo dira Parte Zaharreko, Pasealeku Berriko, Saguesko, Zurriolako, Kaiko, San Bizente eta Santa Maria elizen inguruko, Victoria Eugenia inguruko eta Trinitate, Lasala eta Vinuesa plazen inguruko puntu bereziki sentikorretan, besteak beste.

Lan horietarako, eskuzko fumigazio-ekipoak, hidrogarbigailuak eta ibilgailu espezializatuak erabiliko dira. Bestalde, egunero kartoia bilduko da 04:30ean, Pasealeku Berriaren aldean.

151 errefortzu edukiontzi eta bestelako ontzi

Jai-jardueretan sortutako hondakinak behar bezala botatzeko eta bereizteko, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak 151 edukiontzi eta kubo gehigarri banatuko ditu:

- 1.000 litroko 23 edukiontzi, errefuserako.
- 1.000 litroko 11 edukiontzi, materia organikorako.
- 240 litroko 87 kubo, errefuserako.
- 240 litroko edukiontzi bat, materia organikorako.
- 240 litroko 6 edukiontzi, ontzietarako.
- 120 litroko 23 edukiontzi, beirarako.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Dispositiboaren tamainak egun horietan sortzen den hondakin-bolumen handiari erantzun nahi dio. 2025eko Aste Nagusian 86.240 kilo hondakin kendu ziren, biltzaileen eta gainerako posizioetan jarritako dispositiboen bidez, hala nola Pasealeku Berrian, Saguesen, Martutenen eta suak jaurtitzen diren tokian.

"Jaiez gozatzea, baina errespetuz"

Zerbitzuak indartzearekin batera, Udalak herritarrak kontzientziazteko kanpaina berreskuratu eta indartuko du: "Jaiak gozatu, kalea errespetatu"

Kanpainak gogoraraziko du paperontziak eta edukiontziak erabili behar direla, hondakinak behar bezala bota behar direla eta komun publikoak erabili behar direla. "Herritarrek Aste Nagusiaz, kontzertuez, suez eta ekitaldi guztiez gozatzea nahi dugu, baina betiere hiria eta hura garbitzen duten pertsonen lana errespetatuz", adierazi du Garcíak.

Zinegotziak gaineratu duenez, "Udalak aparteko ahalegina egingo du, langile gehiago, makineria gehiago eta bilketa-puntu gehiago jarrita, baina ez dago dispositibo bat ere gizabidea ordeztu dezakeenik. Donostia jaietan garbi mantentzea guztion zeregina da". "Jaiez gozatzea eta hiria errespetatzea guztiz bateragarriak dira. Paperontzi bat edo komun publiko bat erabiltzea alde handia eragiten duten keinu txikiak dira ", amaitu du.